

«Identitatea eta etnia ezberdinak dira»

Antxon Agirre Sorondo etnografoarekin solas egitea atsegina da oso. Antxonek ez du batere gogoko bere buruaz hitz egitea. Aldiz, etnografiatzat jardutean hitz jario handiko gizona da. Donostiar hau Eusko Ikaskuntzako eta Aranzadi elkarteko Historia eta Etnografia sailetako partaide da, besteak beste. Horrez gain, ETBko Lanbide Zaharrak saioko zuzendaria da.



Antxon Agirre Sorondo

Ainhoa Irazu. Argazkiak: Imanol Otegi.

Nondik abiatzen zarete etnografia ikerketa bat egiteko?

Etnografia ikerketa bat egiten dudanean, datu historiko batzuetatik abiatzen naiz, ikertu nahi denaren inguruko erreferentzia batzuk izateko. Gai bakoitzari buruz, lan historiko bat eta lan etnografiko bat egiten ditut. Artxibategietan ibiltzen naiz, eta bestalde, lekuan lekuko adierazpenak jasotzen ditut, zaharreenak. Gero guztia lotu egiten dut, gaiari jarraipena emateko. Historia eta etnografia bananduta daudela dirudi, baina biak batera doaz.

Euskal Herriko antropologiari buruzko dozena bat pasatxo liburu eta 600 bat artikulua idatzi dituzu. Gai asko jorratu dituzu: makilak, festak, lanbide zaharrak, hilarriak... Zeinek bete zaitu gehien?

Une bakoitzean egiten ari naizen lanak betetzen nau. Lan bat egiten dudanean, horixe da nik egindako lanik politena, beste bat egiten hasi arte. Une honetan herri erlijiotasunari buruz ari naiz.

Hemengo heriotza erritoei beti erakarri zaituzte, ezta?

Beti izan dut gogoko gai hori, aberastasun sinboliko handia duela uste dut eta. Nire ustez, errito horiek gizakia, etnia berez nolakoa den erakusten dute, parafernaliarik gabe. Nolanahi ere, Euskal Herrian hileta gastu handien ondorioz, erritoeak aldatu egin ziren: kanpotarrei jaten eman behar zitzairen, elizaren ordain garestiak... Horrek guztiak hainbat eta hainbat baserri pobretu egin zituen.

Ba al da euskal identitaterik?

«Garai batean 32 harrobi zeuden Orio eta Igeldo artean»

Euskal etnia bat dagoela esan daiteke. Identitatea eta etnia oso kontzeptu ezberdinak dira. Identitatea bi gauzek osatzen dute. Alde batetik, zutabe antropologikoa edo fisikoa. Bestetik, kultur antropologia: hizkuntza, ohiturak, sinesmenak, folklorea eta abar. Beste zenbait herrirekin alderatuta, ezberdintasunak ditugu. Beste ezaugarri batzuk, berriz, berdinak dira. Kulturak eta ezaugarri fisikoek osatzen dute gure etnia. Etnia horrek berdintasun fisiko eta kultural handiak izan ditzake munduko beste herri guztiekin eta baita berezitasunak ere.

Donostian, hainbat lan egin dituzu, Igeldoko harrobiei buruzkoa, esaterako. Noizkoak dira harrobi horien lehendabiziko aipamenak?

Errege Katolikoaren pragmatika batek ematen du horien berri. Arau horren arabera, bertako harriak ezin ziren handik atera, Donostiako batzarrari baimena eskatu gabe. Hogeita hamabi harrobi ziren guztira, Orio eta Igeldo artean. Horietan lanean ibilitako bi zaharrek hitz egin nuen. Biak hil egin ziren. Bertatik ateratako harriekin Donostiako eraikin asko egin ziren: Aldamar kaleko eskolak, Maria Cristina.. Baita errepideetako ertzak ere. Idiekin jaisten zituzten harriak. Oso lan nekeza omen zen.

Harginak bezala, hondarbiltzaileak ere baziren Donostian mende honetan bertan...

Bai. Gabarretan etortzen ziren Urumeatik. Hondarbiltzaileak gerriraino



Maria Palacio
Gros

|| Ez dakit zein alderdi politikorekin elkartuko den PSE-EE. Hala ere, zailtasunak egon arren, argi dago azkenean udal gobernu osatzeko ituna lortuko dutela ●

|| EAJ-EA elkartu beharko luke, gaintzeko alderdiek baino eragin handiagoa baitu ●



Nekane Barandiaran
Inxaurrondo


Norekin osatu beharko luke udal gobernu Odon Elorzak?



Irene Mendi
Amara

|| Itun en alde nago, erabakiak alderdi gehiagoren artean hartzen direlako, baina kasu honetan ez daukat garbi zein alderdirekin elkartuko den Elorza ●

|| PPrekin elkartuko dela uste dut, azken finean Odon Elorza popularrengandik abertzaleengandik baino hurbilago baitago ●



Jon Biana
Parte Zaharra



Jose Miguel Abillera
Antigua

|| PSE-EE PPrekin elkartuko da. Nire ustez erabaki hori aspalditik aurreikusita dute bi alderdiek ●



Ramon Emazabal
Lezo


|| Nire zalantzak ditut, baina nire ustez abertzaleekin osatu beharko luke udal gobernu ●



Informazio gehiagorako eta izena emateko (943) 287488 telefonora deitu
Zubiaurre 32 beheko eskubia
20013 DONOSTIA

EUSKAL BEGIRALE ESKOLA

Aurtengo udaran (uztaila eta abuztuaren)
BURGOSera goaz gozatzeraz



Udalekuak Barbadillo de los Herrerosen (Burgos)
Mendiko ingurunea, kirol programa bereziak (txanda berezietan)
10 eguneko egonaldia

25.000 pezeta txanda eta haurreko

Antxon Sorondoren iritziz gaur egungo jai guztiak berdintsuak dira, ezberdintasun elementuak galtzen ari baitira.



«Heriotza erritoei baserri asko probretu dituzte»

sartzen ziren uretan. Loiolaraino eramaten zuten hartutako hondarra. Gero, harea eguzkitan jartzen zuten lehortu arte. Gatza kendu eta saldu egiten zuten, eraikinak egiteko eta ongarri bezala erabiltzeko.

Zure lana dela eta, bitxikeria asko aurkituko zenituen ezta? Zerk harritu zaitu gehien?

Gauza askok harritu naute. Joan den egunean, esaterako, Oñatiko baseliz batean izan ginen, eta bertako serorak zioenez, aste batzuk lehenago herriko emakume batek umea izan zuen, ermita ondoko askako urarekin bere zera hori busti zuelako. Hamazazpi urte omen zeramatzan haurrik izan gabe. Gure solaskidearen arabera, erritoei eragin zuen haurdunaldia. Kasu guztietan dago zerbait harrigarria.

«Jai tradizionaletik hiri kutsuko jaietara igaro gara»

Jaien bilakaera aztertu duzu. Asko aldatu al dira jaiak lehenengo jai tradizionalekin alderatuta?

Bai. Aldaketa nabarmenena musika da, zeharo aldatu baita. Euskal musika tradizionala, jaien oinarria zena, desagertu egin da. Orain, rocka edo reggae-a entzuten da. Bestetik, lehen euskaldunek betikotasunean eta arimaren salbazioan sinisten zuten. Beraz, behin edo edan egiten zuten, baina gutxitan. Jokaera parametroak aldatu egin dira: ordutegiak, adierazpideak... Guztia sinestenen aldaketan ondorioa da. Gauza batzuei, hala ere, eutsi egin zaie: sokamuturra, estropadak... Bestalde, zoritxarrez, dantza antzokian, zineman eta aretoetan sartu dugu. Kaleko dantza ere galdu egin da.

Beraz, jai tradizional batzue-

tatik hiri kutsuko jai batzuetara igaro gara...

Bai, hori da. Modak, soinuek, ikusentzunezkoek garrantzi handia izan dute horretan. Egun, jai guztiak berdintsuak dira. Hernanin, Lizarran... Ezberdintasun elementuak galtzen ari dira.

San Juanetan oraindik lehenengo gurtze elementu batzuk mantentzen dira: sua, ura, zuhaitza... Edonola ere, jendeak sinesten al du errito horietan?

Gauzen zergatia galdu egin da. Jendeak ezin du sinetsi, jakin ere ez dakielako.

Kristautasunak bere erara egokitu ditu errito horiek, ezta?

Bai, horrek sinkretismoa du izena. Erlijio guztiak aurreko sinestenen guztiez baliatu egin dira.



◆ «Gipuzkoari buruz informazio bila ari nintzela Interneten, Gipuzkoa.net Web orrira jo dut. Bertan lehen hizkuntza euskara da», azaldu digu internauta batek.

Euskararen barnetik eta ataritik



◆ «Pascual Bailon festa dela eta, San Martin azokako erabiltzaileen elkarteak bi lagunentzako afaria zozketatu zuen. Baina zozketa txar-teletan ez da hitz bakar bat ere ageri euskaraz», kontatu digu Erdialdeko emakume batek.


Euskararen alde egiten dena txalotu eta euskararen kontra egiten dena aipatzeko aukera duzu 943-43 12 28 ifonean

Odon Elorza nagusi

PSE-EEK, hala ere, hitzarmenen bidea jorratu beharko du

Odon Elorzaren hautagaitzak aise irabazi ditu udal hauteskundeak. PSE-EEK bederatzi zinegotzi lortu ditu, joan den legealdian zituenak baino bi gehiago hain zuzen. Hauteskundeotan batera aurkeztu diren EA eta EAJk zinegotzi bat galdu dute, 1995an bost eta hiru zinegotzi eskuratu baitzituzten hurrenez hurren. PPK ere ordezkari bat galdu du, eta sei ditu orain. Eta EHk bat irabazi du. Azkenik, IU/EBk behera egin du nabarmen eta galdu egin du Udaltzarrean zuen ordezkari bakarra.

Ekainaren 13ko hauteskundeek agerian utzi dute Elorzaren arrakasta. Izan ere, PSE-EEK Donostian 8.307 boto gehiago izan ditu udal hauteskundeetan Bazar Nagusietarako hauteskundeetan baino. Gainerako alderdietan kontrako joera



Odon Elorzak aise irabazi zituen ekainaren 13an egindako udal hauteskundeak.

izan da: EAJ-EAk 4.179 boto gutxiago izan ditu udal hauteskundeetan, PPK 2.714 gutxiago, IU/EBk 760 gutxiago eta EHk, 584.

Udal Gobernuak erosotasunez ihardun dezan, gehiengo bila hasiak dira alderdiak.

Inork ez du Udaltzarrean gehiengo osoa lortu eta, beraz, negoziazioei ekin behar diete. Hori bai, ezusteko handirik gertatu ezean, PSE-EE Udal Gobernuan izango da eta Odon Elorza alkatea izango da beste lau urtez.

MOKO eta KAPMELE



HERRERAKO SAN LUIS JAIK

J
A
I
A
K

9
9

● LARUNBATA, EKAINAK 19

- 00.00: Txupinazoa eta pregoiaren irakurketa, Le Mixel eta Cornagorekin.
Futbol txapelketako finalak.
- 00.10: Dantzaldia Akelarre taldearekin.
- 09.00: Diana, Perez de Larrazaga dultzainjoleekin.
- 09.30: Haurren hirugarren bolo txapelketa. Izen ematea.
- 09.30etatik 10.15etara: Agustin Paulis haurren futbol txapelketa.
- 11.00: Haur danborrada, Kilikariak fanfarrearekin.
- 12.30: Xakea, Txus Agirretxe Gipuzkoako txapelduna edonoren aurka.
- 13.00: Poteo herrikoia Laura eta Mainer trikitilarien laguntzaz.
- 16.00: Haur jokoak.
- 16.30: Mus txapelketa.
- 17.00: Euskal dantza Herri Ametsa ikastolarekin.
- 18.00: Futbolin biziduna plazan
- 18.30: Goloka taldearen «Ñañak» antzezlanaren Casares kultur etxean.
- 19.30: Txokolate jana eta buruhandiak.
- 20.00: Koadrilen jaitsiera herrikoia.
- 21.00: Gazte afaria.
- 23.00: «Jauko Barik», «Teen Dogs» eta «Trauma» taldeen kontzertua.
- 02.00: Txokolate jana.
- 03.00: Gazteen bigarren jokoak.

● IGANDEA, EKAINAK 20

- 09.00: Diana Perez de Larrazaga dultzainjoleekin.
- 10.00: Bolo, toka eta bote txapelketak.
Eskulangintza azoka
- 10.30: Herri Krosa.
- 11.30: Kirolarientzako hamaiketakoa.
Trikitixa Estanga trikitilari eskolakoekin.

BAR FELI

Ondo pasa auzoko jaietan!

Orduetgia: goizeko 06.30etatik gaueko 22.00ak arte
J.M. Elozegi hiribidea 106 • Tfnoa.: 943-393113

HERRI AMETSA

ikastola



Ondo pasa jaietan!

Mendiola pasealekua 1
20016 Donostia

NARRIHA

taberna

Narriha 16
Tfnoa.: [943] 427327

MUSIKA



Teen Dogs, Jauko Barik eta Trauma taldeek kontzertua emango dute ekainaren 19an 23.00etan. Ekainaren 18an, gauerdian, Akelarre izango da eta igandean Triki ta ke igeldotarrak.

- 12.00: Herri Kirolak: Aizkolariak, Itziar Goenaga eta Kristina Saralegirekin.
Aizkoran australiar eran: Nartxi Saralegi Mieltxo Saralegi harrijasotzailearen erakustaldia.
- 13.00: Bertso saioa: Andoni Egaña, Jon Sarasua, Maddalen Lujanbio, Xabier Legarreta.
- 14.00: Poteo herrikoia.
- 14.30: Barrikote herrikoia Herrerako parkean.
- 18.00: Herri Kirolak: Oiartzun- Iparralde, nor baino nor.
- 19.00: Buruhandiak.
- 19.30: Poteo herrikoia.
- 20.00: Triki ta ke taldearekin erromeria.

● ASTELEHENA, EKAINAK 21

- 09.00: Diana Perez de Larrazaga dultzainjoleekin.
- 11.00: Meza.
- 12.00: Hamaiketakoa jubilatuentzat.
- 18.00: Merienda jubilatuentzat.

● ASTEAZKENA, EKAINAK 23

- 22.00: Villafranca del Penedes-eko Les faicons-en ekitaldia.
San Juan sua.
- 23.30: Azken traka eta zezensuzkoa.
- 00.00: Azken kalejira Kilikariak fanfarrearekin.



Ondo pasa festetan!!

Jose Elozegi hiribidea 131 • Tfnoa.: 943-392435